

## BALOREZKO PROPOSAMENA

### - ARAZO SOZIALA:

Gaur egungo gizartean, ekonomiak oinarri kapitalistak ditu. Ondorioz, enpresak edozein aukerataz baliatzen dira etekin maximoa lortu dezaten. Hori dela eta, ekitaldi ugari ustiatzen dituzte marketing-aren bitartez. Hortaz, gabonak erosketa ekitaldiak bihurtu dira, kontsumizioa izugarri bultzatuz.

Beste aldetik, gaur egungo gizarteak dirudunei egiten diete mesede. Ondorioz, diru gabeak direnek aukera gutxiago dituzte gizartera egokitzeko. Kasu honetan, subjektu hauek ez dute opariak egiteko edota jasotzeko ahalmen ekonomikorik, gabonen ezaugarri bereizgarrietako bat lortzeko aukera galaraziz.

Bi ideia nagusi hauek kontuan hartuta, gure ideia hurrengoa da: opariak erosteko adina diru ez dutenentzako diru eta erabili gabeko objektuen bilketa egitea gabonak ospatzeko aukera izan dezaten.

### - PROIEKTUAREN BALIOA:

Proiektu honi esker ez dugu diru sarrerarik lortzeko asmorik. Horren ordez, gabonak ospatu nahi duten eta hala egiteko erosotasun ekonomikoa ez duten pertsonei laguntza eskaintzea eta gabonetan bakardadea sentitu ez dezaten ziurtzea du helburu.

Askotan erakunde askok proiektu hauek aurrera eramaten dituzte bezeroei itxura ona emateko. Gure kasuan, laguntza eskaintzea denez gure helburu

bakarra, ez dugu halako estrategien beharrik, borondate osoz egiten dugun zerbait baita.

Aldi berean, proiektu honi esker, pertsona horien azalean jartzen gara eta beraien arazoak konpontzeaz gain, haien egoera zabalduko genuke jendea kontzientziaz.

Borobilduz, gure balorezko proposamenari dagokionez, produktu bat izan ordez, zerbitzu bat denez, ez dugu diseinu edota kalitatean asko sakondu behar. Horrez gain, prezioa borondatezko izango litzateke gure bezeroek nahi dutena emango luketelako.